PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN ANIMALIEN OSASUN ZERBITZUAK, ERROLDATZE LANAK, MUGIMENDUEN KONTROLA, IDENTIFIKAZIOA ETA ONGIZATEA KONTROLATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO. 2024KO EKITALDIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE SANIDAD ANIMAL, RECENSO DE GANADO Y CONTROL DEL MOVIMIENTO PECUARIO, IDENTIFICACIÓN Y BIENESTAR ANIMAL, EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA. EJERCICIO 2024.

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren eskumeneko animalien osasunean zerbitzu ofizialak ematea, honako eremu hauetan:

1. Saneamendu kanpainak eta programa ofizialak.
2. Ardi eta ahuntz azienda erroldatzea.
3. Aziendaren zaintza eta osasun kontrola. Albaitaritzako Osasun Alerta Sarea.
4. Alerta sanitarioengatiko kontingentzia planak.
5. Abere mugimenduaren kontrol ofiziala. Abereen osasuna, identifikazioa eta ongizatea kontrolatzea.
6. Abere mugimenduari lotutako lekualdatze dokumentuak eta ziurtagiriak ematea.
7. Animalia bizien garraioaren kontrola.
8. Abereen osasuna, identifikazioa eta ongizatea kontrolatzea animaliek parte hartzen duten ikuskizun, azoka edo kontzentrazioetan.
9. Animalien osasunari buruzko aholkularitza teknikoa ematea lurraldeko abeltzaintzako ustiategietan.
10. Laginak hartzea eta laborategira eramatea.
11. Ustiategitik kanpo animaliak hiltzeko kontrol ofiziala.

1.-OBJETO DEL CONTRATO.

Prestación de servicios oficiales en sanidad animal de competencia del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los siguientes ámbitos:

1. Campañas de Saneamiento y Programas Oficiales.
2. Recenso de ganado ovino y caprino.
3. Vigilancia y control sanitario de la cabaña ganadera. Red de Alerta Sanitaria Veterinaria.
4. Planes de Contingencia por alertas sanitarias.
5. Control Oficial del Movimiento Pecuario. Control sanitario, de identificación y de bienestar animal.
6. Emisión de Documentos de Traslado y Certificaciones vinculadas al movimiento pecuario.
7. Control del transporte de animales vivos.
8. Control Sanitario, de identificación y bienestar animal en Espectáculos, Ferias o Concentraciones donde participen animales.
9. Asesoramiento técnico en Sanidad Animal en las explotaciones ganaderas del territorio.
10. Recogida de muestras y traslado al laboratorio.
11. Control oficial del sacrificio de animales fuera de la explotación.

2.- ZERBITZUEN, ANTOLAMENDUAREN ETA BALDINTZA OROKORREN DESKRIBAPENA.

2.1. OSASUN KANPAINAK ETA PROGRAMA OFIZIALAK.

Halakotzat hartzen dira animalien gaitzak erauzteko programa nazionalak arautzen dituen

2.-DESCRIPCIÓN DE LOS SERVICIOS, ORGANIZACIÓN Y CONDICIONES GENERALES.

2.1. CAMPAÑAS DE SANEAMIENTO Y PROGRAMAS OFICIALES.

Se definen como tales, el conjunto de actuaciones establecidas en virtud del Real Decreto 2611/1996,

abenduaren 20ko 2611/1996 Errege Dekretuaren arabera ezarritako jarduerak. Halaber, atal honetan sartzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) onartutako animalien osasuneko beste programa batzuk betetzeko egin beharreko jarduera ofizialak.

Jarduera horien artean, honako hauek sartzen dira:

- Behien tuberkulosia (MTC), behien bruzelosia, behien perineumonia kutsakorra, behien leukosi enzootikoa eta behien errinotrakeitis infekziosoa (IBR) gaixotasunei aurre egiteko Behi Aziendaren Osasun Kanpaina.
- Behi aziendari eragiten dioten patologia jakin batzuei aurre egiteko borondatezko osasun programa: Behien beherako birikoa (BVD), neosporosia eta paratuberkulosia.
- Aujezsky, txerri izurri klasikoa (PPC) eta txerri izurri afrikarra (PPA) gaixotasunei aurre egiteko Txerri Aziendaren Osasun Kanpaina.
- Ardi eta Ahuntz azienden Osasun Kanpaina: Ardi-ahuntzen bruzelosia, ardien epididimitis kutsakorra eta ahuntzen tuberkulosia. Era berean, Q sukarra zaindu eta kontrolatzeko Programan jasotako jarduerak garatuko dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten dituen txerto ofizialak.
- Mihi urdinaren birusarekiko sentikorrak diren espezieetako animalien laginketak ustiategi zelatarietan.

Kanpainak eta programak Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren zuzendaritzapean egingo dira. Zerbitzu horrek, gainera, jarduketa bakoitzerako protokoloak eta egutegiak ezarriko ditu. Era berean, atera beharreko lagin mota edo aplikatu beharreko teknika diagnostikoak zehaztuko ditu, baita lagindu beharreko animalien ehunekoa edo kopurua ere.

Kontratu honetan aurreikusitako ekintzak Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak adierazitako ustiategietan eta animalia taldeetan ezarritako programaren

de 20 de diciembre, por el que se regulan los programas nacionales de erradicación de enfermedades de los animales. Asimismo, se incluyen en este apartado aquellas actuaciones oficiales a ejecutar en cumplimiento de otros programas de sanidad animal aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

Dentro de estas actuaciones se incluyen las siguientes:

- Campaña de Saneamiento Bovino frente a tuberculosis bovina (CMT), brucelosis bovina, perineumonía contagiosa bovina, leucosis enzoótica bovina y rinotraqueitis infecciosa bovina (IBR).
- Programa sanitario voluntario de lucha frente a determinadas patologías que afectan al ganado bovino: diarrea vírica bovina (BVD), neosporosis bovina y paratuberculosis bovina.
- Campaña de Saneamiento Porcino frente a la enfermedad de Aujezsky, peste porcina clásica (PPC) y peste porcina africana (PPA).
- Campaña de Saneamiento Ovino y Caprino frente a: brucelosis ovina-caprina, epididimitis contagiosa ovina y tuberculosis caprina. Asimismo, se desarrollarán las actuaciones recogidas en el Programa de vigilancia y control de la fiebre Q.
- Vacunaciones oficiales que determine la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Muestreos en explotaciones centinelas de animales de las especies sensibles al virus de la lengua azul.

Las campañas y programas se realizarán bajo la dirección del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera (SPSAG) de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Este Servicio establecerá además los protocolos y calendarios para las distintas actuaciones. Asimismo, determinará el tipo de muestras a extraer o las técnicas diagnósticas a aplicar y el porcentaje o número de animales a muestrear.

Las acciones previstas en el presente contrato se realizarán según programa establecido en aquellas explotaciones y grupos de animales señalados por el SPSAG. Asimismo, se realizarán los seguimientos

arabera egingo dira. Era berean, beharrezko jarraipenak egingo zaizkie animaliei eta/edo ustiategiei, behin betiko diagnostikoa egiteko. Bestalde, Zerbitzuak, emaitzen arabera, osasun probak errepikatzea edo beste jarduera batzuk egitea erabaki ahal izango du hala behar duten ustiategietan.

Esleipendunari dagokio, oro har, honako lan hauek egitea:

- Ekintza horietako bakoitza egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak jartzea.

- Preskripzio teknikoen agiri honetan ezarritako epeak betetzeko egutegia antolatzea.

- Lanaren gauzatzea koordinatzea, eta kronogramari buruzko txostenak egitea eta Zerbitzura bidaltzea, ezarritako aldizkakotasunarekin (gutxienez hilean behin).

- Animaliak dauden tokira joatea behar diren laginketak eta/edo tratamenduak egiteko.

- Jarduketaren xede diren animalien identitatea egiaztatzea.
- Animaliak ofizialki identifikatzea, beharrezkoa denean.
- Laginak hartzea analizatzeko (odola, esnea, gorozkiak edo bestelakoak) eta/edo tuberkulinizatzeko (sinplea edo konparatua), eta/edo, hala dagokionean, animaliak txertatzea.
- Laginei eta diagnosi probei buruzko ikuskapenak eta anamnesi klinikoak egitea.

- Laginak GFAk izendatutako laborategira bidaltzea. Analisiak egiteko izendatutako laborategia Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategia da, eta Zerbitzuarekin adostu ahal izango du lagina bigarren laborategi batera bidaltzea, prozesatzeko.

- Egoera klinikoaren eta emaitza analitikoen diagnostikoa eta balorazioa egitea.
- Datuak informatizatzea GFAk emandako aplikazio informatikoetan.

necesarios sobre los animales y/o explotaciones, en vista a dar el diagnóstico definitivo. Por otra parte, el SPSAG, en función de los resultados, podrá determinar la repetición de las pruebas sanitarias u otras actuaciones en aquellas explotaciones que así lo precisen.

Corresponderá a la adjudicataria la realización de las siguientes tareas con carácter general:

- Destinar los recursos humanos necesarios para la realización de cada una de estas intervenciones.
- Organización del calendario para el cumplimiento de los plazos establecidos en este pliego.
- La coordinación de la ejecución del trabajo, así como la realización y remisión al SPSAG de los informes sobre cronograma y ejecución de los programas con la periodicidad que se establezca (mínima mensual)
- Desplazamiento al lugar donde se ubiquen los animales para realizar los muestreos y/o tratamientos que se precisen.
- Comprobación de la identidad de los animales objeto de actuación.
- Identificación oficial de los animales cuando fuere preciso.
- Toma de muestras para su análisis (sangre, leche, heces u otras) y/o tuberculinización (simple o comparada) y/o vacunación de los animales cuando corresponda.

- Realización de las inspecciones y anamnesis clínicas necesarias en relación con las muestras y pruebas de diagnóstico.
- Remisión de las muestras al laboratorio designado por la DFG. El laboratorio designado para la realización de las analíticas es el Laboratorio Agroambiental de Fraisoro, quien podrá acordar con el SPSAG la remisión de la muestra a un segundo laboratorio para su procesamiento.
- Diagnóstico y valoración del estado clínico y los resultados analíticos.
- Informatización de los datos en las aplicaciones informáticas proporcionadas por la DFG.
- Seguimiento de casos de diagnóstico dudoso y repetición de toma de muestras si fuera

- Diagnostiko zalantzagarriko kasuen jarraipena egitea eta laginak berriro hartzea, beharrezkoa bada, eta behar diren txostenak egitea.

- Emaitzen berri ematea GFAri eta abeltzainari. Egindako probaren batean emaitza positiborik badago, abeltzainari hartu beharreko neurrien berri emango zaio, eta antzemandako akatsak zuzentzeko behar diren gomendioak emango zaizkio.
- Abeltzainei informazioa ematea animalien trazabilitateari buruzko legezko betebeharrei buruz (animalien identifikazioa, mugimenduen jakinarazpena, erregistro liburuak betetzea...) eta ustiategietako osasun kalifikazioak mantentzeko edo berreskuratzeko eta/edo animalien mugimenduak behar bezala egiteko osasun baldintzatzaileei buruz.

- Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunen bat dagoelako susmoa izanez gero, Zerbitzuari jakinaraztea.
- Inkesta epidemiologikoak betetzea, hala eskatzen den kasuetan.

- Indarrean dagoen araudiaren aurkako arau hausteak antzemanez gero, bai animalien osasunaren eta identifikazioaren arloan, bai animalien ongizatearen arloan, egoera hori salaketa-aktan jasotzea eta Zerbitzura bidaltzea.

Lan hori albaitari batek gainbegiratuko du nahitaez eta bere ardurapean egingo da.
Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategiak ezarriko du, esleipendunarekin eta Zerbitzuarekin koordinatuta, laborategira bidali beharreko gehieneko lagin kopurua. Barne egitura dela eta, laborategiak laginak onartzeko sistematika alda daiteke egun edo aste berezietan (Aste Santua, Gabonak....).

Laginak astelehenetik ostiralera bidali beharko dira, behar bezala identifikatuta eta laborategiak ezarritako jarraibideen arabera, eta laginak hartu eta hurrengo eguneko goizeko zortziak baino lehen entregatu beharko dira.

preciso, así como la elaboración de los informes que fueran necesarios
- Comunicación a la DFG y al ganadero de los resultados. Si hubiera resultados positivos a alguna de las pruebas realizadas, se informará al ganadero de las medidas a adoptar, así como ofrecer las recomendaciones necesarias para corregir los posibles fallos detectados
- Proporcionar información a los ganaderos sobre las obligaciones legales en relación con la trazabilidad animal (identificación animal, comunicación de movimientos, cumplimentación de los libros de registro...) y condicionantes sanitarios para mantener o recuperar las calificaciones sanitarias de las explotaciones y/o realizar correctamente los movimientos de los animales
- Notificar al SPSAG cualquier sospecha de presencia de alguna enfermedad de declaración obligatoria.
- Cumplimentación de las encuestas epidemiológicas en los casos en que se requiera
- En el caso de detectar infracciones a la normativa vigente, tanto en el área de la sanidad e identificación animal, como de bienestar animal, recoger dicha circunstancia en acta de denuncia y remitirla al SPSAG.

Este trabajo será realizado obligatoriamente bajo la supervisión y responsabilidad de un veterinario. El Laboratorio Agroambiental de Fraisoro, en coordinación con la adjudicataria y el SPSAG, establecerá el número de muestras máximas a enviar al Laboratorio. Por motivos propios del Laboratorio, éste podrá determinar semanas y días en los cuales la admisión de muestras variará de la sistemática habitual (Semana Santa, Navidad, etc.)

Las muestras deberán ser remitidas de lunes a viernes debidamente identificadas y de acuerdo con las directrices establecidas por el Laboratorio, donde serán entregadas antes de las 8:00 horas del día siguiente a la toma de muestras.

2.1.1. Tuberkulosi, bruzelosi, perineumonia, leukosi eta IBRei aurre egiteko Behien Osasun Programa eta borondatezko programa sanitarioak.

Zerbitzuak ezarritako jarraibideen arabera, eta indarrean dauden araudietako eta onartutako desagerrarazteko programetako jarraibideei jarraituz, adjudikaziodunak behien tuberkulosia (MTBC), behien bruzelosia (BB), behien leukosi enzootikoa (BLV), behien perineumonia kutsakorra (CBPP) eta behien errinotrakeitis infekziosoa (IBR) desagerrarazteko programak gauzatuko ditu. Programa horiek aplikatzearekin batera, behi aziendari eragiten dioten patologia jakin batzuei aurre egiteko borondatezko programarako laginak bilduko dira: Behien beherako birala, neosporosia, paratuberkulosia eta etorkizunean ezar daitekeen beste edozein.

Oro har, eta salbuespenezko egoeretan izan ezik, programa urtarriletik maiatzera bitartean garatuko da. Gainerako hilabeteetan segimenduak eta ekintza puntualak egingo dira arriskua duten ustiategietan eta berriro osasun kalifikazioa atera behar duten ustiategietan.

Oro har, eta arauetan edo programetan aldaketarik ez badago, honako hauek izango dira egin beharreko jarduera espezifikoak:

- Tuberkulosiaren aurkako dermis azpiko probak egitea 6 aste baino gehiagoko behi aziendei -arrunta eta konparatiboa-. Kasu berezietan, baimendutako beste diagnostiko-proba osagarri batzuk egin ahal izango dira, hala nola γ-interferon (idi-probetako idiak dituzten ustiategiak, behien tuberkulosiak eragindako isolamendua baieztatuta duten ustiategiak...).

- Programa bakoitzak hautatutako ustiategietan eta adin taldeetan odoleko serum laginak hartzea, bruzelosiaren, leukosiaren, perineumoniaren eta IBRren aurkako antigorputzak eta/edo antigenoak detektatzeko.
- Antigorputzak edo antigenoak antzemateko, serum edo odol laginak hartuko zaizkie borondatezko osasun programan izen

2.1.1. Programa de Saneamiento Bovino frente a tuberculosis, brucelosis, perineumonía, leucosis e IBR y programas sanitarios voluntarios.

De acuerdo con las directrices establecidas por el SPSAG y siguiendo las pautas de las normativas vigentes y de los programas de erradicación aprobados, la adjudicataria ejecutará los Programas de erradicación de la tuberculosis bovina (CMT), brucelosis bovina (BB), leucosis enzoótica bovina (LEB), perineumonía contagiosa bovina (PCB) y rinotraqueitis infecciosa bovina (IBR). Conjuntamente a la aplicación de estos programas, se efectuará la recogida de muestras destinadas al programa voluntario de lucha frente a determinadas patologías que afectan al ganado bovino: BVD, neosporosis, paratuberculosis y cualquiera otra que pudiera establecerse en el futuro.

De manera general, y salvo circunstancias excepcionales, el programa se desarrollará entre los meses de enero y mayo. Durante el periodo restante se realizarán seguimientos y actuaciones puntuales a explotaciones de riesgo y a explotaciones que deban ser recalificadas sanitariamente.

Por norma general y salvo modificaciones normativas o de programa, las actividades específicas a ejecutar serán las siguientes:

- Realización de las pruebas intradérmicas simple y comparada frente a Tuberculosis en los bovinos mayores de 6 semanas. En casos especiales, se podrán realizar otras pruebas autorizadas complementarias de diagnóstico como la del gamma interferón (explotaciones bovinas con bueyes de arrastre de piedra, explotaciones con confirmación de aislamiento de CMT...).
- Toma de muestras de suero sanguíneo en las explotaciones y grupos de edad seleccionados por cada programa, para detección de anticuerpos y/o antígenos frente a Brucelosis, Leucosis, Perineumonía e IBR.

- Toma de muestras de suero sanguíneo y/o sangre entera para detección de anticuerpos y/o antígenos a los animales bovinos de las

emandako ustiategietako behi aziendako animaliei erasaten dioten patologia jakin batzuen aurka borrokatzeko: Behien beherako birala, neosporosia, paratuberkulosia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk.
- Abereen babes immunologikorako profilaxi neurriak ezartzea, hala dagokionean.

explotaciones inscritas en el programa voluntario de lucha frente a determinadas patologías que afectan al ganado bovino: BVD, Neosporosis, Paratuberculosis u otras que se pudieran desarrollar en el futuro
- Aplicación de las medidas de profilaxis vigentes para protección inmunológica de los efectivos ganaderos, cuando proceda.

2.1.2. Txerri Aziendaren Osasun Programa, Aujezsky gaixotasuna, txerri izurrite klasikoa eta txerri izurrite afrikarrari aurre egiteko.

Esleipendunak Aujezskyren, txerri izurri klasikoaren eta txerri izurri afrikarraren gaixotasunari aurre egiteko txerri osasun programan jasotako jarduerak gauzatuko ditu.
Oro har, eta arauetan edo programetan aldaketarik ez badago, honako hauek izango dira egin beharreko jarduera espezifikoak:

- Aujezsky gaixotasunaren, txerri izurrite klasikoaren eta txerri izurrite afrikarraren antigorputzak edo antigenoak antzemateko serum edo odol laginak hartzea txerriei. Kasu berezietan, baimendutako beste diagnosi proba batzuk egingo dira.
- Aujezskyren gaixotasunaren aurrean 3. kalifikazioa duten ustiategien txertaketa egoera egiaztatzea.
- Abereen babes immunologikorako profilaxi neurriak ezartzea, hala dagokionean.

2.1.2. Programa de Saneamiento Porcino frente a enfermedad de Aujezsky, peste porcina clásica y peste porcina africana.

La adjudicataria ejecutará las actuaciones recogidas en el Programa de Saneamiento Porcino frente Enfermedad de Aujezsky, Peste Porcina Clásica y Peste Porcina Africana.
Por norma general y salvo modificaciones normativas o de programa, las actividades específicas a ejecutar serán las siguientes:

- Toma de muestras de suero sanguíneo y/o sangre entera para detección de anticuerpos y/o antígenos frente a la Enfermedad de Aujezsky, Peste Porcina Clásica y Peste Porcina Africana a los animales porcinos. En casos especiales, se podrán realizar otras pruebas autorizadas de diagnóstico.
- Comprobación del estado vacunal de las explotaciones con calificación 3 frente a la enfermedad de Aujezsky.
- Aplicación de las medidas de profilaxis vigentes para protección inmunológica de los efectivos ganaderos, cuando proceda.

2.1.3. Ardi-ahuntzen bruzelosiari, ardien epididimitis kutsakorrari eta ahuntzen tuberkulosiari aurre egiteko Ardi-ahuntzen Osasun Programa eta tratamendu ektoparasitarioak.

Esleipendunak ardien eta ahuntzen bruzelosiaren eta ardien epididimitis kutsakorraren aurkako osasun programak gauzatuko ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Era berean, Q sukarraren Programaren barruan zehazten diren jarduerak egingo ditu.

2.1.3. Programa de Saneamiento Ovino-caprino frente a brucelosis ovina-caprina, epididimitis contagiosa ovina, tuberculosis caprina y tratamientos ectoparasitarios.

La adjudicataria ejecutará los Programas de Saneamiento Ovino-caprino frente a la brucelosis ovina-Caprina y la epididimitis contagiosa ovina en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, realizará las actuaciones que se definan dentro del Programa de la fiebre Q.

Oro har, eta salbuespenezko egoeretan izan ezik, programa irailetik abendura bitartean garatuko da. Gainerako hilabeteetan segimenduak eta ekintza puntualak egingo dira arriskua duten ustiategietan eta berriro osasun kalifikazioa atera behar duten ustiategietan.

Oro har, eta arauetan edo programetan aldaketarik ez badago, honako hauek izango dira egin beharreko jarduera espezifikoak:

- Odoleko serumaren laginak hartzea, ardi ahuntzen bruzelosiaren, ardien epididimitis kutsakorraren eta Q sukarraren aurkako antigorputzak detektatzeko. Kasu berezietan, beste diagnostiko proba osagarri baimendu batzuk egin ahal izango dira.
- Ahuntz aziendari buruzko tuberkulosiaren proba intradermiko sinpleak eta konparatuak egitea, ahuntz ustiategietan behi aziendak badituzte, esnea giza kontsumora bideratzen badute edo herri larreak badituzte.
- Abereen babes immunologikorako profilaxi neurriak ezartzea, hala dagokionean.

Ardien ektoparasitosiaren aurkako tratamendua.

SPSAren jarraibide teknikoen arabera, esleipendunak ardi-ektoparasitosiari aurre egiteko profilaxi tratamenduen kanpaina egingo du.

Arau orokor modura, kanpaina maiatzean hasi eta irailean amaituko da.

Kanpaina artzain elkarteekin, erakunde profesionalekin, udalekin, eskualdeko nekazaritza bulegoekin, artzainekin eta abarrekin koordinatuta egingo da. Aldez aurretik zehaztuko dira egikaritzeko zonaldeak, eta baita lan egutegiak ere.

Horretarako, esleipendunak dutxa eramangarriekin halako tratamenduak egiten adituak diren bi pertsona izango ditu gutxienez.

De manera general, y salvo circunstancias excepcionales, el programa se desarrollará entre los meses de septiembre y diciembre. Durante el periodo restante se realizarán seguimientos y actuaciones puntuales a explotaciones de riesgo y a explotaciones que deban ser recalificadas sanitariamente.

Por norma general y salvo modificaciones normativas o de programa, las actividades específicas a ejecutar serán las siguientes:

- Toma de muestras de suero sanguíneo para detección de anticuerpos frente a Brucelosis Ovina-caprina, Epididimitis Contagiosa Ovina y Fiebre Q. En casos especiales, se podrán realizar otras pruebas complementarias autorizadas de diagnóstico.
- Realización de las pruebas intradérmicas simple y comparada frente a Tuberculosis sobre ganado caprino en los casos en los que en las explotaciones caprinas cuenten con ganado bovino, destinen leche a consumo humano o accedan a pastos comunales.
- Aplicación de las medidas de profilaxis vigentes para protección inmunológica de los efectivos ganaderos, cuando proceda.

Tratamiento frente a ectoparasitosis ovinas.

De acuerdo con las directrices técnicas del SPSA, la adjudicataria realizará la Campaña de tratamientos de profilaxis frente a ectoparasitosis ovinas.

Como norma general, la Campaña se iniciará en el mes de mayo y finalizará en el mes de septiembre.

La Campaña se ejecutará de forma coordinada con las Asociaciones de pastores, organizaciones profesionales, Ayuntamientos, OCAs, pastores, etc. Previamente se habrán señalado las zonas de ejecución, así como los calendarios de trabajo.

Para ello, la adjudicataria contará con al menos dos personas especializadas en la realización de este tipo de tratamientos por medio de duchas portátiles.

Esleipendunak tratamenduak egiteko beharrezkoa den materiala eskuratu beharko du (produktu zoosanitarioak, etab.). Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak dutxa eramangarrien ekipoak jarriko ditu esleipendunaren eskura tratamenduak egiteko eta esleipenduna arduratuko da dutxa eramangarriak mantentzeaz.

Bainuak egin ondoren, sortutako hondakinak ontzi egokietan gordeko dira, Zerbitzuak adostutako puntuetan. Hondakin horiek metatze puntu batera eramango dira azkenik horiek suntsitzeko baimendutako kudeatzaile batera garraiatzeko.

Lurralde Oreka Berdeko Departamentua arduratuko da hondakinak metatze puntu horretatik desagerrarazteko kudeaketa izapidetzeaz.

Esleipendunak honako lan hauek egin beharko ditu:

a) Ardiei tratamenduak burutzea adierazitako puntu eta egunetan.
b) Tratamendurako dutxetan sortutako hondakinak biltzea.
c) Hondakinak metatze puntu batera garraiatzea.

2.1.4. Mihi Urdinaren birusaren zirkulazioa zaintzea birusarekiko sentikorrak diren espezieetako animalien ustiategi zelatarietan.

Zirkulazio birikoa zaintzeko laginketak egiteko, ustiategi zelatarietan odol laginak hartzen dira. Uneko egoera epidemiologikoaren arabera, planteamendua aldatu ahal izango da, baina, orientazio gisa, proposatutako zaintza-plana zehazten da jarraian.

Laginketak Zerbitzuak hautatutako ustiategietan egin beharko zaizkie, serologikoki negatiboak, txertatu gabeak eta 4 hilabetetik gorakoak diren animalia zelatariei. Jarraipena gutxienez bi ustiategitako 20 abereri egingo zaie. Kanpainaren

La adjudicataria deberá adquirir el material necesario (productos zoosanitarios... etc.) para efectuar los tratamientos. El Departamento de Equilibrio Territorial Verde pondrá a disposición de la adjudicataria equipos de duchas móviles que será donde se efectúen los tratamientos, siendo la adjudicataria la encargada del mantenimiento de las duchas portátiles.

Posteriormente a la realización de los baños, los residuos generados se guardarán en recipientes adecuados en los puntos convenidos por el SPSAG. Estos residuos se trasladarán a un punto de concentración para finalmente ser transportados a un Gestor Autorizado para su destrucción.

El Departamento de Equilibrio Territorial se hará cargo de la tramitación de la gestión de eliminación de los residuos desde este punto de concentración.

El trabajo a desarrollar por la adjudicataria consistirá en:

a) Realización de los tratamientos a los ovinos en los puntos y calendarios señalados.
b) Recogida de los residuos producidos en las duchas de tratamiento.
c) Transporte de los residuos al punto de concentración.

2.1.4. Vigilancia de circulación del virus de la Lengua Azul en explotaciones centinelas de animales de las especies sensibles al virus.

Los muestreos para la vigilancia de la circulación vírica consistirán en la toma de muestras de sangre en explotaciones centinelas. En función de la situación epidemiológica del momento el planteamiento podrá modificarse, pero, a modo orientativo, a continuación, se detalla el plan de vigilancia propuesto.

Los muestreos deberán realizarse, en las explotaciones seleccionadas por el SPSAG, sobre animales centinelas, serológicamente negativos, no vacunados y mayores de 4 meses. El seguimiento se realizará sobre un mínimo de 20 animales pertenecientes, al menos, a 2

hasieran, maiatzean, Zerbitzuak ustiategiak aukeratuko ditu.

Abere zelatarien laginketa bat egingo da hurrengo urteko ekainetik urtarrilera bitartean. Hilero lagindutako animaliek berak izan behar dute beti, salbu eta, ustiategian baja emateagatik, beste animalia batek ordezten baditu.

Era berean, beharrezkoa izango da ikuskapen eta anamnesi klinikoak egitea, ustiategi zelatarietan jasotako laginei dagokienez.

2.1.5. Abortuak kontrolatzeko programa.

Bestalde, bruzelosia zaindu eta kontrolatzeko programak, behiei zein ardi eta ahuntzei dagokienez, gaixotasunarekin bateragarriak diren abortuen zaintza pasiboa barne hartzen du, eta, ondorioz, abortuak nahitaez jakinarazi behar dria. Bruzelosiak eragin ditzakeen abortutzat hartuko da taldean abortu batzuk gertatzea, batez ere haurdunaldiaren azken herenean.

Laginak programaren arabera jaso eta NEIKEReko Laborategira bidaliko dira.

2.2. ARDI ETA AHUNTZ AZIENDA ERROLDATZEA.

Atal honetan sartzen dira Gipuzkoako aziendako ardi eta ahuntz azienda erroldatzeko egin beharreko jarduera ofizialak, egiaztatuta aziendak behar bezala identifikatuta daudela.

Ardi eta ahuntz azienda erroldatzeko kanpaina Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuak zehazten duenaren arabera egingo da. Oro har, eta salbuespenezko egoeretan izan ezik, kanpaina irailetik abendura bitartean egingo da, ardi osasun kanpainarekin batera.

Urtero zehaztuko da aztertu beharreko abere errolda, ezarritako programaren arabera, eta aldatu ahal izango da programak ezarritako beharren arabera. Gaur egun, Lurraldea hiru

explotaciones. Al inicio de la campaña, en el mes de mayo, el SPSAG seleccionará las explotaciones.

Se realizará un muestreo de animales centinelas entre junio y enero del año siguiente. Los animales muestreados de manera mensual deberán ser siempre los mismos, salvo que, por razón de baja en la explotación de algunos de ellos, sean sustituidos.

Será asimismo necesario realizar las inspecciones y anamnesis clínicas necesarias en relación con las muestras en explotaciones centinela.

2.1.5. Programa de control de abortos.

Por otra parte, el programa de vigilancia y control de la brucelosis, tanto en vacuno como en ovino-caprino incluye la vigilancia pasiva de los abortos compatibles con la enfermedad, cuya notificación es obligatoria. Se considerará como abortos que pueden ser causados por brucelosis la ocurrencia de una serie de abortos en el rebaño, principalmente en animales en el último tercio de gestación.
Las muestras serán recogidas según programa y remitidas al Laboratorio de NEIKER.

2.2. RECENSO DE GANADO OVINO Y CAPRINO.

Se incluyen en este apartado las actuaciones oficiales a ejecutar para el censado de los efectivos de ovino-caprino de la cabaña guipuzcoana, con verificación y comprobación de su correcta identificación.

La campaña de recensado del ganado ovino-caprino se desarrollará según determine el Servicio de Ayudas y Registros. Como norma general y salvo circunstancias excepcionales, la campaña se desarrollará desde el mes de septiembre hasta el mes de diciembre, coincidiendo con la campaña de saneamiento ovino.

El censo ganadero a recensar se determinará anualmente según programa establecido y podrá variar en función de las necesidades marcadas por el mismo. A día de hoy, el Territorio está dividido en tres zonas; en dos se realiza un censado de

eremutan banatuta dago; bitan erroldatzen dira hazitarako abereak erroldatzen dira eta B. ovis gaixotasunaren aurkako osasun probak egiten zaizkie. Gainerakoan, 2.1 atalean deskribatutako esku-hartze sanitarioak egiteaz gain, ustiategian dauden buruak erroldatuko dira. Kasu bietan, aldi berean, hazitarako ardi eta ahuntzen identifikazioa egiten da, indarrean dagoen araudiari jarraituz eta ardi eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko eskuliburuen arabera.

Lantaldea osatuko dute bi laguntzaile espezialistak, erroldatze gunean, eta bi laguntzaile espezialistak eta albaitari batek kanpaina gunean.
Lan metodologia honako hau izango da:

- Aurreko erditze aldian jaiotako ardi eta ahuntz azienda identifikatzea, identifikazio unitate homologatuekin.
- Identifikazio zaharra galdu duten ardi eta ahuntz aziendak identifikatzeko unitate homologatuekin identifikatzea.
- Egindako identifikazioen egiaztagiria ematea abeltzainari.
- Animalia taldeko ardi eta ahuntz abelburu guztiak erroldatzea, identifikazio egokia egiaztatu eta ziurtatuta. Identifikaziorako unitateak galdu edo hondatu egin direla hautemanez gero:
  - Anomalien berri jasotzea, aplikazio informatiko lagungarrietan.
  - Identifikaziorako unitateetan anomaliak dituzten animalien zerrenda ematea titularrari.
  - Gabeziak zuzentzeko betebeharraren eta hori egin ahal izateko prozeduraren berri ematea titularrari.
- Identifikazioko informazioa bildu, egiaztatu/ziurtatu eta Departamentuko datu basera bidaltzea.
- Artaldeetako hazitarako ahariei odol lagina ateratzea.
- Odol lagin horiek Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategira bidaltzea.

2.3. AZIENDAREN ZAINTZA ETA OSASUN KONTROLA. ALBAITARITZAKO OSASUN ALERTA SAREA.

efectivos y pruebas sanitarias exclusivamente a sementales frente a B. ovis. En la restante, además de las intervenciones sanitarias descritas en el apartado 2.1, se realizará el censado de los efectivos presentes en la explotación. En ambos casos, al mismo tiempo también se realiza la identificación de las reses ovinas y caprinas destinadas a reproducción, siguiendo las pautas de las normativas vigentes y los manuales de aplicación de identificación y registro ovino y caprino.

El equipo de trabajo estará formado por dos ayudantes especialistas en zona de recenso y dos ayudantes especialistas y un veterinario en la zona de Campaña.
La metodología de trabajo será la siguiente:

- Identificar con las unidades de identificación homologadas a los ovinos-caprinos nacidos en la paridera anterior
- Identificar con las unidades de identificación homologadas a los ovinos-caprinos que hayan perdido la identificación antigua.
- Proporcionar al ganadero el comprobante de las identificaciones realizadas
- Censado de todo el efectivo ovino-caprino del rebaño, con verificación y comprobación de la correcta identificación. En caso de detectar pérdidas o deterioros de las unidades de identificación:
  - Recoger las anomalías en las aplicaciones informáticas de apoyo
  - Proporcionar al titular la relación de animales con anomalías en las unidades de identificación.
  - Informar al titular de la obligación de corregir las deficiencias y el procedimiento para lograrlo.
- Recogida de la información de identificación, comprobación/verificación de la misma y traslado a la Bases de Datos del Departamento
- Extracción de una muestra de sangre a los sementales ovinos de los rebaños
- Envío de estas muestras de sangre al Laboratorio Agroambiental de Fraisoro.

2.3. VIGILANCIA Y CONTROL SANITARIO DE LA CABAÑA GANADERA. RED DE ALERTA SANITARIA VETERINARIA.

Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legearen 5. artikuluaren arabera, pertsona fisiko edo juridiko orok, publiko zein pribatu izan, berehala jakinarazi beharko dizkio agintaritza eskudunari izaera epizootikoko gaixotasunen susmo edo foku guztiak; gaixotasunak birulentzia berezia duelako, oso larria delako, edo azkar zabaltzen delako, animaliek kutsatzeko arrisku handia dutenean, edo osasun publikorako nahiz ingurumenerako arriskua dagoenean. Halaber, derrigorrean eman behar da edozein prozesu patologikoren berri, aipatutako ezaugarriak ez izan arren, derrigorrean deklaratu beharreko gaixotasunen zerrendetan dagoen gaixotasun bat dela sumatzen denean. Aldi berean, jakinaraziko dira gizaki eta animalien osasunerako nahiz ingurumenerako oso arriskutsuak izan daitezkeen produktu zoosanitarioei lotutako ekintza edo jarduera guztiak, eta baita animalien elikadurarako arriskutsuak izan daitezkeenak ere.

Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak, zaintza, kontrol eta jarraipen lan horiek egiteko, kontratu honen esleipendunaren zerbitzu teknikoen laguntza izango du, eta esleipendunak zerbitzu horiek gauzatuko ditu Zerbitzuaren jarraibideei jarraituz.

Atal honetan, esleipendunak honako lan hauek egin beharko ditu nagusiki:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 8/2003 Legearen 5. artikuluan deskribatutako ezaugarriak betetzen dituen gaixotasunen bat egon daitekeela susmatzen bada, hori zaintzea eta egiaztatzea, eta Zerbitzuari berehala jakinaraztea.
- Gaixotasunaren hedapena kontrolatzeko Zerbitzuak ezarritako beharrezko neurriak ezartzea. Neurri horien artean egon daitezke: Ikuskapenak, laginak hartzea, diagnostiko-probak, jakinarazpenak, ibilgetzeak, inkesta epidemiologikoak egitea, jarraipenak, tratamenduak, sakrifizioak, etab.
- Edozein arrazoirengatik **ibilgetuta** geratzen diren abereak kontrolatzea; kautelazko neurria kendu beharko da arriskurik ez dagoela eta/edo gaixotasuna baztertu dela egiaztatzen denean.
- Gaixotasuna izan dezaketen ukuiluen edo arrisku handikoak izateagatik zaintza berezia

De acuerdo con el artículo 5 de la Ley 8/2003 de 24 de abril de Sanidad Animal, "Toda persona, física o jurídica, pública o privada, estará obligada a comunicar a la autoridad competente, de forma inmediata, todos los focos de que tenga conocimiento de enfermedades de carácter epizoótico, o que por su especial virulencia, extrema gravedad o rápida difusión impliquen un peligro potencial de contagio para la población animal, o un riesgo para la salud pública o para el medio ambiente". Será igualmente obligatoria la comunicación de cualquier proceso patológico, que, aun no reuniendo las características mencionadas, ocasione la sospecha de ser una enfermedad de las incluidas en las listas de enfermedades de declaración obligatoria. Igualmente, se deberán comunicar todos aquellos hechos o actividades que supongan una sospecha de riesgo y grave peligro para la salud humana, animal o para el medio ambiente, en relación a los productos zoosanitarios y para la alimentación animal.

El Departamento de Equilibrio Territorial Verde, para el desarrollo de estas labores de vigilancia, control y seguimiento, se apoyará en los servicios técnicos de la adjudicataria del presente contrato, quien las ejecutará siguiendo las directrices del SPSAC.

Las labores a desarrollar, principalmente, por la adjudicataria en este apartado serán las siguientes:

- Vigilar y comprobar cualquier sospecha de aparición, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, de enfermedad que cumpla las características descritas en el artículo 5 de la Ley 8/2003, y comunicar de forma inmediata al SPSAG.
- Implantar las medidas necesarias para el control de la difusión de la enfermedad fijadas por el SPSAG, que podrán incluir: Inspecciones, toma de muestras, pruebas de diagnóstico, notificaciones, inmovilizaciones, elaboración de encuestas epidemiológicas, seguimientos, tratamientos, sacrificios, etc.
- Controlar aquellos ganados que por cualquier motivo hayan sido **inmovilizados,** debiendo levantar la medida cautelar cuando se haya comprobado la no existencia de riesgo y/o se haya descartado la enfermedad.

behar duten ukuiluen osasun ikuskapenak egitea, eta gauzatutako ekintzen ikuskapen-aktak egitea kasu guztietan.

Ekintza horiek kontratuan kostu ekonomikoa izatea ekarriko dute, baldin eta gauzatzea beharrezkoa bada. Lanen baremazio ekonomikoa eta tarifak, berriz, gauzatutako neurri eta ekintzen araberakoak izango dira.

2.4. ALERTA SANITARIOENGATIKO KONTINGENTZIA PLANAK.

GFAko albaitaritza zerbitzu ofizialei laguntza teknikoa emateko dira, gaixotasun fokuak agertu direlako edo agertzeko arriskua dagoelako ezarritako alerta sanitarioetatik eratorritako Kontingentzia Planak gauzatzeko. Kasu horietan, egin beharreko jarduerak GFAko albaitaritza zerbitzuek zehaztuko dituzte, ezartzen diren kontingentzia planen arabera.

Kontratuaren esleipendunari dagokio honako esku-hartze hauek garatzen laguntzea:

- Animalien osasun egoera egiaztatzea, laginak hartzea eta/edo proba diagnostikoak egitea barne, horiek beharrezkoak direnean.
- Ustiategia kautelaz ibilgetzea.
- Abereak hiltzea eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko lanen eraginkortasuna egiaztatzea.
- Abeltzaintzako ustiategietarako sarbidea kontrolatzea.
- Gorpuak eta gaixotasunak kutsatzeko bide izan litezkeen gainerako materialak ateratzen laguntzea, horiek tratamendu instalazioetara eramateko.
- Fokuaren izaeraren arabera ezar daitezkeen lotutako beste batzuk.

Ekintza horiek kontratuan kostu ekonomikoa izango dute, soilik, gauzatu behar direnean eta kostua ustiategiaren titularrari egotzi behar ez zaionean. Lanen baremazio ekonomikoa eta

- Realizar las inspecciones sanitarias de los establos sospechosos de padecer enfermedad o de aquellos otros que por ser de alto riesgo necesiten una vigilancia especial, levantando en todos los casos actas de Inspección de las acciones ejecutadas.
-

Estas acciones únicamente significarán coste económico en el contrato cuando sea precisa su ejecución. Las tarifas y baremación económica de los trabajos dependerán de las medidas y acciones desarrolladas.

2.4. PLANES DE CONTINGENCIA POR ALERTAS SANITARIAS.

Consiste en la prestación de servicios de apoyo técnico, a los servicios veterinarios oficiales de la DFG, en la ejecución de los Planes de Contingencia derivados de alertas sanitarias por aparición o por riesgo de aparición de focos de enfermedades. Las actuaciones a llevar a cabo en estos casos serán las que determinen los servicios veterinarios de la DFG al amparo de los Planes de Contingencia que se establezcan.

Corresponderá a la adjudicataria del contrato, colaborar en el desarrollo de las siguientes intervenciones:

- Comprobación del estado sanitario de los animales, incluyendo la toma de muestras y/o realización de las pruebas diagnósticas cuando éstas sean necesarias.
- Inmovilización cautelar de la explotación.
- Sacrificio del ganado y comprobación de la efectividad de las tareas de limpieza y desinfección de las instalaciones.
- Control de acceso a las explotaciones ganaderas.
- Colaborar en la evacuación de cadáveres y otros materiales contumaces para su traslado a las plantas de tratamiento.
- Otras relacionadas que puedan establecerse en función de la naturaleza del foco.

Estas acciones únicamente significarán coste económico en el contrato cuando sea precisa su ejecución y el coste no deba ser imputado al titular de la explotación. Las tarifas y baremación

tarifak, berriz, garatutako neurri eta ekintzen araberakoak izango dira.

2.5. ABERE MUGIMENDUAREN KONTROL OFIZIALA. ABEREEN OSASUNA, IDENTIFIKAZIOA ETA ONGIZATEA KONTROLATZEA.

Zerbitzuak finkatutako jarraibideen arabera, eta indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz, enpresa esleipendunak zaintza eta kontrol ekintzak egin ahal izango ditu lurraldeko abeltzaintzako ustiategietan sartzeko edo horietatik irteteko animalien mugimendua kontrolatzeko.
Abere mugimenduetan burutu beharreko funtzio eta jarduerak honako hauek izango dira:

Animalien sarrerak:

- Egiaztatzea animaliak identifikazio baldintzen, osasun baldintzen eta eska daitezkeen dokumentuen arabera sartu direla.

- Eskatutako osasun proba ofizialak egitea abereei.
- Animalien titularrari jakinaraztea arau baldintzak betetzen diren ala ez, eta antzemandako akatsak zuzentzeko gomendio teknikoak ematea.

- Egindako kontrolen emaitzak eskualdeko bulegoei eta Zerbitzuari jakinaraztea eta helaraztea, datu-basean eguneratzeko. Komunikazioak, orokorrean, formatu informatikoen bidez egingo dira.
- Indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak edo arau-hausteak antzemanez gero, balizko ez-betetzeak eta arau-hausteak berehala jakinaraztea Zerbitzuari, salaketa-akta baten bidez.

Animalien irteerak:

- Irten aurretik, legeak araututako probak burutzea eta osasun eta higiene baldintzen, identifikazioaren eta ongizatearen ikuskapenak egitea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak hornitutako datu-baseetan egiaztatzea ustiategiek, abelburuek eta abarrek betetzen dituztela lekualdatzeko

económica de los trabajos dependerán de las medidas y acciones desarrolladas.

2.5. CONTROL OFICIAL DEL MOVIMIENTO PECUARIO. CONTROL SANITARIO, DE IDENTIFICACIÓN Y DE BIENESTAR ANIMAL.

De acuerdo con las directrices fijadas por el SPSAG y siguiendo lo dispuesto por la normativa vigente, la empresa adjudicataria podrá realizar acciones de vigilancia y control del movimiento de animales hacia / desde y entre las explotaciones ganaderas del Territorio.

Las acciones a desarrollar en los movimientos del ganado serán las siguientes:

Entradas de animales:

- Comprobar que las entradas de animales se han realizado de acuerdo a los requisitos de identificación, sanitarios y documentales exigibles.
- Realización de pruebas sanitarias oficiales requeridas a las reses.
- Comunicar al titular de los animales el cumplimiento o no de los condicionantes normativos, así como proporcionar las recomendaciones técnicas para la corrección de las deficiencias detectadas.
- Comunicar y transmitir a las Oficinas Comarcales y al SPSAG el resultado de los controles efectuados para su actualización en la base de datos. De manera general, para las comunicaciones se utilizarán formatos informáticos.
- En caso de detección de incumplimientos o infracciones a la normativa vigente, trasladar inmediatamente al SPSAG, por medio de un Acta de denuncia, los posibles incumplimientos e infracciones.

Salidas de animales:

- Realización de las pruebas legalmente establecidas e inspección de los condicionantes higiénico-sanitarios, de identificación y de bienestar de los animales previos a la salida.
- Comprobación en las bases de datos provistas por la DFG, que las explotaciones, reses, etc., cumplen los condicionantes de traslado y que no existen restricciones, tanto en las

baldintzak, eta ez dagoela murrizketarik animalien irteera eta helmuga ustiategietan.

- Indarreko araudietan legez ezarritako dokumentazio osagarria ematea.

- Lurralde Oreka Berdeko Departamentuari jakinaraztea eta helaraztea egindako kontrolen emaitzak, datu-basean eguneratzeko. Komunikazioak, orokorrean, formatu informatikoen bidez egingo dira.

- Indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak edo arau-hausteak antzemanez gero, balizko ez-betetzeak eta arau-hausteak berehala jakinaraztea Zerbitzuari, salaketa-akta baten bidez.

2.5 atalean deskribatutako ekintzak egiteak ez du kostu ekonomikorik eragingo Lurralde Oreka Berdeko Departamentuarentzat. Kostua ustiategiaren titularrak hartuko du bere gain.

2.6. ABERE MUGIMENDUARI LOTUTAKO LEKUALDATZE AGIRIAK ETA ZIURTAGIRIAK EMATEA.

Abereak lekuz aldatzerakoan (Estatu barruko mugimenduak) aziendarekin batera eraman behar diren agiri ofizialak egin eta abeltzaintzako ustiategiei entregatzea, edo Europar Batasunaren barruko edo kanpoko mugimenduetan Lekualdatze Dokumentuak emateko Zerbitzuari laguntzeko balio behar duten ziurtagiriak egitea.

Garatu beharreko zereginen deskribapena honako hau izango da:

- Abelburuak lekualdatzeko dokumentazioa ematea (Animaliaren jatorriari eta osasunari buruzko gidak), albaitari baimendu baten laguntza behar denean; adibidez, inguruabar epizootiologiko bereziak agertzen direnean, mugimendua egiteko aldez aurreko ikuskapena edo kontrola eta albaitari ofizial edo baimendu batek emandako dokumentazio espezifikoa eskatzen denean.

explotaciones de salida como de destino de los animales.
- Emisión de la documentación de acompañamiento legalmente establecida en las normativas vigentes.
- Comunicar y transmitir al Departamento de Equilibrio Territorial Verde el resultado de los controles efectuados para su actualización en la base de datos. De manera general se utilizarán formatos informáticos para las comunicaciones y transmisiones.
- En caso de detección de incumplimientos o infracciones a la normativa vigente, trasladar inmediatamente al SPSAG, por medio de un Acta de denuncia, los posibles incumplimientos e infracciones.

